



**Herritarrentzat baratze ekologikoak jartzeko ordenantza erregulatzaileari hasierako onarpena eman zion udal plenoak iragan ostegunean.** Baratze horien esleipena eta kudeaketa arautuko dituen Ordenantza erregulatzailearen hasierako onarpena izan zen, zehazki, eta orain jendaurrean jarriko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia azaltzen den hurrengo egunetik 30 lanegunetako epean herritarrek euren iritziak aurkeztu ahal izateko. Baratzak Altamiran dira egitekoak, Kutxa Ekogunearekin elkarlanean. Hemen duzue [ordenantza erregulatzailearen hasierako proposamena](#)